



Espedientearen kodea: 2024ZZ020001

Espedientearen gaia: Oiartzungo kirol klub en eta elkarten funtzionamendu gastuetarako eta beraien jarduna sustatzeko 2024ko dirulaguntzak.

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA

Xabier de la Mota Vazquez, Oiartzungo Udalaren idazkari naizenak:

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024/06/25ean, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

“OIARTZUNGO KIROL KLUBEN ETA ELKARTEEN FUNTZIONAMENDU GASTUETARAKO ETA BERAIEI JARDUNA SUSTATZEKO 2024KO DIRULAGUNTZAK.

2024ko urtarrilaren 17an Herritarren Batzordean “Oiartzungo kirol klub en eta elkarten funtzionamendu gastuetarako eta beraien jarduna sustatzeko 2024ko dirulaguntzak banatzeko oinarriak” proposatu ziren, eta, ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeak 2024ko urtarrilaren 23an onartu zituen oinarriak.

Dirulaguntza hauetan kontuan izan da 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorra, Oiartzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2022-2024 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea eta beronen aldaketak martxoak 3ko 1/2022 Legeak ezarritakoak.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Kirol sailak zazpi eskabide aztertu ditu, behar bezala eta epearen barruan aurkeztutakoak. Horietatik sei onartu egin dira, eta eskaera bat, Delta Klub Haizea elkarte, ezetsi egin da, ez dagoelako egunean Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko zerga-betebeharretan, eta, beraz, dirulaguntza ezeztu egin zaio.

Dirulaguntza zenbatekoa finkatzeko, eskaera orrian eta formularioetan behar bezala jasota eta egiaztatuta dauden datuak baloratu dira oinarrietan jasotzen den arabera.

Dirulaguntzak kalkulatzeko, lehenik, puntuaren balio unitarioa atera da; horretarako, dirulaguntzaren lerro honen aurrekontua onartutako eskaeren puntu batura artean zatitu da. Jarraian, kirol- klub en eta elkarte bakoitzari dagokion puntu kopurua puntuaren balio unitarioaz biderkatu da.

Eskaerak aztertuta, honako puntuazioa lortu du kirol-klub en eta -elkarte bakoitzak, eta ondorioz, honako dirulaguntza ematea proposatzen da:

ELKARTEA	Puntuak	100%
OIARTZUN KIROL ELKARTEA	1390	30.990,92 €
OIARPE KIROL ELKARTEA	347,5	7.747,73 €
HAURTZARO KIROL ELKARTEA (Atletismoa)	225	5.016,52 €
TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	231	5.150,29 €
HIRUKI BIRA GIMNASIA KLUBA	189	4.213,87 €
OIARTZUNGO SASKILAGUNAK S.K.T	39,5	880,68 €
GUZTIRA		54.000,00 €



Horiek horrela, Herritarrek Batzordeak 2024ko ekainaren 19an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honakoa

ERABAKI DU

Lehen.- Txosten honen I. eranskinean zerrendatzen diren elkarteei ohiko funtzionamendu eta jarduna sustatzeko dirulaguntzak ematea.

Bigarrena.- Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira 54.000.- euroko gastu onarpena egitea, Oiarzongo Udalaren 2024 urteko aurrekontuko 1 0352.481.341.00.02 2024 diru-atalaren kontura (A-25/2024) zenbakidun partidaren kargura, eta "Ohiko kirol jardueretarako dirulaguntza" kontu- sailaren kontura finantziatuko da.

Hirugarrena.- Kasu bakoitzean emandako dirulaguntza bi epeetan ordaintzea: ordainketaren % 60a (32.400 €) orain egingo da, eta irailaren 30a baino lehen eta gastuak justifikatu ondoren, % 40 (21.600 €) ordainduko da.

Laugarrena.- II. eranskinean jasotako dirulaguntza eskaerak ezestea, bertan zehazten diren arrazoiengatik.

I. ERANSKINA

ELKARTEA	Puntuak	1. ORDAINKETA	
		100%	1. ORDAINKETA (%40)
OIARTZUN KIROI ELKARTEA	1390	30.990,92 €	12.396,37 €
OIARPE KIROI ELKARTEA	347,5	7.747,73 €	3.099,09 €
HAURTZARO KIROI ELKARTEA (Atletismoa)	225	5.016,52 €	2.006,61 €
TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROI KLUBA	231	5.150,29 €	2.060,12 €
HIRUKI BIRA GIMNASIA KLUBA	189	4.213,87 €	1.685,55 €
OIARTZUNGO SASKILAGUNAK S.K.T	39,5	880,68 €	352,27 €
GUZTIRA		54.000,00 €	21.600,00 €

II. ERANSKINA

Ezetsitako eskaera:

JARDUERA	ARRAZOIA
DELTA KLUB HAIZE	Ez ditu Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko zerga-betebeharrak egunean

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araber, Oiarzunen, sinaduraren egunean.

Idazkariak
Xabier de la Mota Vazquez

O.E.
Alkateak
Joana Mendiboure



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024ZZ020001-Ebazpena TGB/Ebazpena TGB (OIARTZUNGO UDALA)